

ETXEBIZITZA BIRGAITU EDO BERRITZEKO LAGUNTZEN ESKAERA (PARTIKULARREN OBRAK)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. Aurkeztu beharreko dokumentazio orokorra
<ul style="list-style-type: none">• Emandako obren udal-lizentziaren kopia. Lizentzia hori beharrezkoa ez bada, dagokion alde aurreko jakinarazpena.
<ul style="list-style-type: none">• Obren udal-tasak
<ul style="list-style-type: none">• Obren aurrekontua (kontratututako gremioena), partidaka banakatua, bakoitzaren neurketa eta prezio unitarioa adierazita. Familia bakarreko eraikinetan, EITan jasotako 1., 2. eta 3. mailako obrak sartu beharko dira aurrekontuan, egin gabe badaude.
<ul style="list-style-type: none">• Obrak hala eskatzen badu, teknikari eskudunaren proiektuaren kopia ikus-onetsia eta teknikari eskudunaren obra-zuzendaritzako kontratuaren kopia.
<ul style="list-style-type: none">• Ordainsari teknikoaren aurrekontua.
<ul style="list-style-type: none">• 2. motako obretarako, energia-efizientzia hobetzeko obretarako: teknikari eskudunaren txostena edo proiektu ikus-onetsia, obrak hala eskatzen badu, barnean hartuta esku hartzeko proposamenaren xede den etxebizitzak edo eraikinak duen energia-efizientziaren ziurtagiria, baita proiektuan justifikatuta lortzea aurreikusten den energia-efizientziaren proposamena ere.
<ul style="list-style-type: none">• Familia bakarreko eraikinen kasuan: Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren txostena, aurkeztu izana egiaztatzen duen zigiluarekin. Gainera, EITan 1., 2. edo 3. mailako obrak behar badira eta konponketa horiek eginda badaude, Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren urritasunak zuzentzeko ziurtagiria aurkeztu beharko da, dagokion erregistroan aurkeztu izana egiaztatzen duen zigiluarekin.
<ul style="list-style-type: none">• Obrak hasi aurreko egoeraren argazkiak, koloretan.
2. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza eskatu behar bada, 1. puntuan adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da:
<ul style="list-style-type: none">• Eskatutako obra-aurrekontuen hiru eskaintza, hornitzaile desberdinenak; hautaketaren justifikazioa, proposamen ekonomiko onuragarriena ez denean; eta, obrak gauzatzeko kontratua, 45. artikuluan oinarrituta aplikatzekoa denean.
<ul style="list-style-type: none">• Laguntza teknikorako eskatutako hornitzaile desberdinen hiru eskaintza; hautaketaren justifikazioa, proposamen ekonomiko abantailatsuen ez denean; eta, laguntza teknikorako kontratua, 45. artikuluan oinarrituta aplikatzekoa denean.
3. Zerga-arinketa eskatu behar bada, 1. puntuan adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da:
<ul style="list-style-type: none">• Higiezinaren jabetza egiaztatzen duen dokumentua (Jabetza Erregistroaren informazio-ohar soila edo eskrituraren fotokopia).
<ul style="list-style-type: none">• Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiriaren fotokopia, higiezinaren zenbaki finkoa jasotzen duena.
4. Mailegua eta/edo dirulaguntza eskatu behar bada, 1. eta 2. puntuetan adierazitako dokumentazioaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da:
<ul style="list-style-type: none">• Bizikidetzako udal-ziurtagiri eguneratua, birgaitze-jarduketaren xede den etxebizitzan elkarrekin bizi diren pertsona guztiak jasotzen dituen, edo, hala badagokio, obra-amaierako ziurtagiria egin eta 3 hilabeteko epean aurkezteko konpromisoa.
<ul style="list-style-type: none">• Birgaitze jarduketaren titularren diru-sarreraren ziurtagiriak<ul style="list-style-type: none">• PFEZ aitortu beharra baduzu edo aitortu baduzu:<ul style="list-style-type: none">- Etxebizitza-eskaera hau aurkeztzen denean mugaeguneratuta dagoen azken zergaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpen(ar)en fotokopia/k. Aitortpenak/ek Foru Ogasunean, Kutxan edo Banketxean aurkeztua izanaren zigilua eraman behar du/te- Kotizazio gabeko prestaziorik jasoz gero, dagokion ziurtagiria.• PFEZ aitortu beharrik ez baldin baduzu (eta ez duzu egin):<ul style="list-style-type: none">Kasu guztietan,<ul style="list-style-type: none">- Foru Ogasunaren ziurtagiria, zergaldi horretan (eskaera hau aurkeztzen denean amaituta dagoen azken ekitaldian) PFEZ aitortu beharrik ez duzula egiaztatzen duena.- Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra egina. (901502050 www.seg-social.es).Besteren konturako langilea bazara:<ul style="list-style-type: none">- Zergaldi horretan kontzeptu guztiengatik jaso dituzun sarrera gordinak adierazten dituen dokumentua, enpresak edo enplegu-emaileak egina.

- Pentsioduna bazara edo bestelako beka, prestazio edo sorospenik (gizarte ongizatekoak barne) jasotzen baduzu, dagokion egiaztagiria, ekitaldi horretakoa.

- Mugikortasun urriko edo desgaitasun sensoriala duten pertsonen irisgarritasunerako dirulaguntza berezia eskatuz gero, aipatutako dokumentazioaz gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte: Mugikortasun urriko desgaitasuna edo desgaitasun sensoriala duela egiaztatzen duen ziurtagiriaren kopia.
- Itzuli beharrik gabeko laguntza eskatu badu: Hirugarrenaren altaren dokumentu betea, helbide honetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/altaterceros>